



ALBOAN

Nazioarteko boluntarioen erronkak gaur egun, Hegoaldetik ikusita



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GEZARTE
GABETAKO SARLA
Gazarte Gaitheko Sarburuondetza
Gazarte Gaitheko Sarburuondetza
Gazarte Gaitheko Sarburuondetza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y
ASUNTOS SOCIALES
Viceconsejería de Asuntos Sociales
Dirección de Cooperación al Desarrollo

Argitalpen hau nazioarteko boluntariotzaren inguruan egindako hausnarketa eta ikerketari buruzko proiektu batean kokatzen da. Proiektu honen barnean hiru argitalpen egin dira.

Esperientziak ALBOAN

1. Garapenerako bidean. Tokian tokiko parte hartze-testigantzak. (2007)
2. Etorkizun-aukerak. (2007)
3. VOLPA, nazioarteko boluntarioen programa. Nazioarteko boluntarioen esperientzia baten azterketa, Iparraldetik egina. (2007)
4. Nazioarteko boluntarioen erronkak gaur egun, Hegoaldetik ikusita. (2007)

Nazioarteko boluntarioen erronkak gaur egun, Hegoaldetik ikusita



Argitaratzailea:

ALBOAN

Aita Lojendio 2, 2. • 48008 Bilbo
Tel.: 944 151 135 • Faxa: 944 161 938
alboanbi@alboan.org

Barañain Etorbidea 2 • 31011 Iruñea
Tel.: 948 231 302 • Faxa: 948 264 308
alboanna@alboan.org

Erronda Kalea 7, 4. Ezk. • 20001 Donostia
Tel.: 943 275 173 • Faxa: 943 320 267
alboangi@alboan.org
www.alboan.org

Egilea: Santiago Vallebuona, Juan Carlos Escalona, Antonio Planelles,
Guillermo Beaumont, Héctor Mo, Erminsu Iván David Pabón, Oscar Vázquez
eta **ALBOAN**

Data: Abendua 2007

Itzulpena: Elhuyar

Diseinu eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimaketa: Lankopi S.A.

Lege-gordailua: BI-3810-07

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, beti ere helburu
komertzialik ez badu eta iturburua aipatzen baldin bada.

Aurkibidea

Aurkezpena	5
Nazioarteko boluntarioen erronkak gaur egun, Hegoaldetik ikusita. SANTIAGO VALLEBUONA W. SJ	7
I. Latinoamerikako testuinguruaren eta egoeraren erronkak	7
II. Iparraldeko boluntarioak	11
III. Boluntarioen bizitza pribatua	12
IV. Boluntarioen eskaria eta eskaintza	15
V. Boluntarioen helburuak berrikusten	16
Fe y Alegríaren ekarpenak. Venezuela. JUAN CARLOS ESCALONA	19
Virgen de los Dolores Etxearen (HVD) ekarpenak. Venezuela. ANTONIO PLANELLES ETA GUILLERMO BEAUMONT	23
IGEReko boluntarioen esperientzia. Guatemala. HÉCTOR MO	31
Nekazarien Institutu Nagusiaren (IMCA) ekarpenak. Kolonbia. ERMINSU IVÁN DAVID PABÓN	37
Encuentros eta boluntariotza-esperientziak. Perú. OSCAR VÁZQUEZ	41

AURKEZPENA

Nazioarteko boluntariotza pertsonen, erakundeen eta kulturen arteko topaketa-esperientzia bat da, eta beste mundu posible bat eraikitzen laguntzen du.

Nazioarteko boluntariotza garapenari laguntzeko beste modu bat da. Epe luzeko esperientzien bidez, posible egiten da pertsonen, erakundeen eta iparraldeko eta hegoaldeko gizarteen arteko partekatze horizontala lortzea.

Gure inguruan, nazioarteko boluntariotza-programa eta -aukera asko daude. Orokorrean, nazioarteko boluntariotzaren esperientzia motzenek errealitate ezberdinen arteko kontaktu hori azpimarratzen dute, boluntarioen jatorrizko gizartean eta horko pertsonengan eragin handiagoa bilatu nahian. Epe luzeko nazioarteko boluntariotza-programek, berriz, eragin orekatuagoa lortzen dute pertsonengan, erakundeetan eta iparraldeko eta hegoaldeko gizarteetan. Hala ere, analisi eta ikerketa gutxi egin dira iparraldeko zein hegoaldeko eraginen gainean.

Esperientzia horien eragina ezagutzen lagunduko gaituzten zenbait elementu eskaini nahian, boluntarioak hartzen dituzten erakundeek nazioarteko boluntariotza-esperientzien elementu eta eragin positiboak buruz eta programa horien erronkei buruz emandako zenbait bertsio, analisi eta erantzun biltzen dira argitalpen honetan.

Ondoren, Santiago Vallebuonak, Erminsú David Pabónek (IMCA), Hector Mok (IGER), Ignacio Planellesek, Guillermo Beaumontek (Virgen de los Dolores etxea)

eta Oscar Vázquezek (Encuentros) zenbait erakunde eta boluntariorekin 2007ko apirilean eta ekainean partekatutako hausnarketak azaltzen dira.

Espero dugu hausnarketa hauei esker nazioarteko boluntariotza-programak uneko eskaerei eta helburu den kolektiboaren eskaerei egokitzen joatea, eta, hala, eskaera horien helburua lortzea: beste mundu posible hori eraikitzea.

Nazioarteko boluntarioen erronkak gaur egun, Hegoaldetik ikusita

*Santiago Vallebuona W. sj**

I. LATINOAMERIKAKO TESTUINGURUAREN ETA EGOERAREN ERRONKAK

Eredu neoliberalaren globalizatzeko garaiak bizi ditugu.

Egoera horrek gatazkan eta bazterketan oinarritutako egitura politikoak eta ekonomikoak ekarri ditu Latinoamerikara.

Hazkunde ekonomiko iraunkorra ahalbidetuko duten “garapen-ereduei” buruz hitz egiten da. Latinoamerikako herrialde batzuetan gertatzen da hori, baita Perun ere. Baina, eredu horren ondorioz, pobrezia are gehiago hazten eta amildetia handitzen ari da.

Boluntarioak nola lantzen du gatazka soziala, gero eta polarizatuago dauden eta gero eta amildegi handiagoak banatzen dituen gizarte horietan?

Peruko gizarteari buruzko ebaluazio larregarria egin zuen CVRk (Egiaren eta Adiskidetzaren Batzordea). Ebaluazioak gizarte zatitu eta gatazkatsua erakusten zuen: Sendero Luminoso-ko matxinatu terroristek, Gobernuak eta indar armatuek 70.000 hildakotik gora eragin zituzten, eta kitxua hitz egiten duten nekaza-

* Santiago Vallebuona Peruko giza erakunde ezberdinetan boluntarioen laguntzailea da.

riak izan ziren biktima nagusiak. Horrek adierazten du, gizarte horretan, bizitzaren balioa bakoitzari egokitutako sektorearen arabera dela.

Eredu neoliberalak sortzen dituen kontrasteen eraginez, herrialde berean “elkarrekin bizi” dira, batetik, bizitza-maila altuko gutxiengoak, kalitatezko hezkuntza eta sistemaren pribilegio guztiak dituztenak, eta bestetik, populazioaren gehien-go pobrea. Eta, ondorioz, arrazismoan, bazterketan eta injustizian oinarritutako harreman sozialak sortzen dira.

Egoera hori are larriagoa da hiri handietatik kanpo, bereziki landa-eremuetan eta Andeetako herrietan, leku horietara ez baitira iristen ez Estatua ez garapen-proiektuak.

Neurri handi batean, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremana dago egoera horren azpian, baina boluntario-programa bat egiteko, herrialde bakoitzaren ezaugarrietatik eta injustizietatik abiatu behar da. Hala, boluntarioak prestatzeko orduan, komenigarria da boluntarioa biziko den lekuko pobrezia-forma historiko zehatzak azaltzea.

Nola bihurtzen da boluntarioa sektore sozial polarizatuen, familien, pertsonen eta sistema eta Estatua ordezkatzeko dituzten erakundearen arteko elkarriketa-eragile? Konturatzen gara ez dagoela “proiektu nazionalik”, gizarte- eta kultura-arloko sektoreak proiektu bateratu batean integratzen dituenik?

Egoera ekonomiko hori politikan ere islatzen da. Demokraziak, errealak baino “formalak” dira, eta gure herrialdeetan ez dute osatzen gizarte zibil, antolatu, ordezkari, zaintzaile eta kritikoaren oinarria. Herrialde askotan, hauteskundee-tan parte hartzeko eta noiz edo noiz protestaren bat egiteko eskubidea baino ez da “hiritartasuna”.

Bolivia, Venezuela, Ekuador eta beste zenbait herrialdetan Kubarekin lotzen diren mugimendu nazionalistak daude. Ardatz nazionalista hori alternatiba iraunkor gisa har daiteke?

Bestalde, Txile, Argentina eta Brasilgo gobernuek, besteak beste, sistemari lotutako ekonomia funtzionalak dituzte, eta, aldi berean, oinarri sozialistako ideologiak defendatzen dituzte. Horiek guztiak krisian dagoen sistema baten sintomak dira, hots, garapenaz hitz egin, baina pobrezia, bazterketa eta gizarteko polarizazioa sortzen jarraitzen duen sistema batenak. Gure boluntarioek badute sistema

horrekiko ikuspegi kritikoa eta badituzte mugimendu horiek ulertzen lagunduko dieten elementu teorikoak?

Gehiengo pobreek ez dute aukerarik beren buruak ordezkatzeko eta Estatuaren eta sistemaren aurrean defendatzeko. Politika eta alderdi politikoak krisian daude, eta gazteek ez diete sinesgarritasunik ematen erakundeei. Herrialde askotako jendeak hiritartasun-kontzientzia oso eskasa du, eta ez du erabiltzen. Hezkuntzak, komunikabideek, estatuak, Elizak eta beste erakunde askok jarrera autoritarioak hartzen dituzte, eta, askotan, populistak edo paternalistak.

Boluntarioak zer lan egin dezake laguntzen duen jendearen “hiritartasuna”, autoestimua, parte-hartzea eta kontzientzia kritikoa indartzeko?

Boluntarioak eguneroko esparrua (lana, familia) aztertu behar du, eta, ondoren, sektore horietako prozesu sozialekin lotzen jakin behar du.

Boluntarioez hitz egitean, inkulturazioaz edo kulturen murgiltzeaz ere ari gara, aldaketarako ekarpenak egiteaz, betiere, eredu propioak, autogestiozkoak, justuagoak eta solidarioak eraikitzeko.

Gure boluntarioek nola ulertzen dute garapena eta zer ikuspegi dute Estatuari, gizarte zibilaren zereginari eta prozesu sozialei buruz?

Herrialde pobre askotan erakundeak (botere judiziala, kongresua, alderdi politikoak...) krisian daude etengabe. Ustelkeriaren, formaltasunik ezaren eta “criollismoaren” eraginez, erakundeek ezin dute lortu oinarritzko egonkortasunik prozesuek aurrera egin ahal izateko. Gizartearen desadostasunak kontrolatzeko, Estatuak atzerriko inbertsioak erakartzen ditu, arazoaren muinari heldu gabe.

Egoera horrelakoa izanik, etorkizuna ez da oso itxaropentsua: epe laburreko helburuak jartzen dira eta ahal duenak bere burua salbatzen du. Boluntario batek hemengo gazteekin harreman horizontala duenean, nola lotzen ditu bere “bizitza-proiektua” eta boluntario gisa lan egiten duen lekuko gazte pobreena? Gazteen Hegoaldetik Iparralderako exodoa eta immigrazioa ikusirik, nola indar daiteke leku horretako gazteen identitatea, autoestimua eta konpromisoa?

Testuinguru horretan, boluntarioek beren herrialdeari buruzko irudi ideala agertzen badute eta lan egiten duten herrialdeko arazoekin alderatzen badute, baliteke tokikoek beren herrialdeari buruz duten desilusia handitzea eta atzerriko herrialdeak neurritz gain baloratzea.

Inkultrazio anaikorra behar da, sinplea, gertukoa, elkarriketan oinarritutakoa, egunerokotasunaren arlotik eta arlo pertsonaletik abiatzen dena, kulturen arteko trukea errazteko. Baina, aldi berean, tokiko kultura Iparraldeko mitoaren aurrean ez gutxiesten saiatu behar da, hau da, ez zaie begiratu behar soilik pobreziari eta aspalditik datozen injustiziei. Harreman injustu horiek aldatzeko kezka eta gogoa piztu behar da, tokiko balioak eta baliabideak erabiliz, eta gazteak beren errealitateetik deserrotu gabe.

Aldaketarako alternatibak ez dira kanpotik ekarri behar, baizik eta protagonistek, hau da, pobreek sortu behar dituzte. Dena den, ez dira pobreak idealizatu behar, eta aldi berean, ez dira polarizatu behar eta beste sektoreekin gatazka irekian jarri. Biolentzia eta desadostasunak bideratzea da asmoa, hitzarmen-prozesu demokratikoen bidez eta eragileak indartuz.

Hiritartasun-eskubideak gauzatu eta “ahalduntzea” lortu behar da, sistemaren egituretan benetako eragina izateko. Guztion eta guztiontzako gizartea –berdintasunean, justizian eta zuzenbidean oinarritutakoa– lortzeko elkarriketa-agentea izan daiteke boluntarioa.

Tokiko injustizia-harremanetatik abiatu, eta harreman horiek egitezko planora eramateko gauza izango dira gure boluntarioak?

Latinoamerikako errealitatearen eta kulturaren ezaugarrietako bat da erlijioa. Herritarren jainkozaletasuna, eliza hierarkikoaren rola, talde fundamentalisten sorrera (OPUS DEI, Sodalitium Vitae eta abar), askatasunaren teologiako taldeak, talde kritikoak eta sektak oso kontuan hartu behar dira kontzientzia osatzeko orduan.

Eliza Katolikoa krisian dago. Elizaren inboluzioa gertatzen ari da mundu guztian, Vatikanoko II. Kontzilioan, Medellin-en... egindako aurrerapenen ondoren; izan ere, atzera egin dugu, hori guztia klerikalismo autoritario eta kontserbatzailea bultzatzen ari baita. Pastoral soziala despolitizatu egin da, eta asistentziatzeko pastoralak eta akritikoak bultzatzen ari dira.

Testuinguru horretan, gogoratu behar da Iparraldeko boluntario askok zentzua aurkitu zietela fedeari eta erlijioari Hegoaldean izandako esperientzien eraginez. Jendearen fede xumearekin, laiko konprometitu eta anaikorrekin, pobreekin konprometitutako eliz agintariekin harremanetan jartzeak erlijioaren zentzua berriz baloratzen lagundu die hainbati.

Inkulturatu eta fedearen balio humanistak berreskuratu nahi dituzten boluntarioek nola egingo diote aurre krisi hori?

Iparraldeko boluntarioek, agnostikoak edo sinesgabeak izan arren, prest egon behar dute espazio fededun edo erlijiosoetan hitz egiteko, gauza berriak aurkitzeko eta parte hartzeko, hala, dimentsio sozial eta transzendente horretara igaro ahal izateko.

Pobreen kristautasunak erabateko gizatiartze-bidea egitea esan nahi du, eta bizitza besteekin konpartitzea ahalbidetzen du. Krisiaren erdian, “erlijio” gizatiarragoa bila dezakegu elkarren artean. Gaur egun, “pobreen aldeko lehentasunezko aukera” krisian dagoen honetan.

Ezin dira boluntarioak –fedearrekin edo balio gizatiarrekin konpromiso estua agertzen duten horiek– misiolari laiko bihurtu, apaizak eta sektore progresistak atzera egiten ari direla kontuan izanda?

II. IPARRALDEKO BOLUNTARIOAK

Iparraldeko boluntarioek behar edo erronka bikoitz bati erantzun diezaioketela uste dugu:

- Hau da **lehenengo erronka**: “Iparraldearen eta –Hegoaldearen arteko harremanak gizatiartzea”. Izan ere, harreman horiek erabat desitxuratzen ditu sistema neoliberal egoistak eta materialistak, zeinak mendebaldeko kultura-eredu baztertzaila eta ankerra –gizakia ekonomiaren menpe jartzen duena– inposatzen duen.

Pertsonen, kulturen, arrazen... arteko harremanaren bidez, boluntarioak “bakearen kultura” bultzatzen du, justizian, berdintasunean eta solidaritatean oinarritutakoa.

Nazioarteko harremanak gizatiartzeak “boterearen” logika, “guztia dakienarena”, “goian dagoenarena” aldatzea esan nahi du, eta, haren ordeztu,

“errespetuaren, elkarriketaren, desarmatzearen, bestearen egia aitortzearen eta besteekin partekatu, ikasi eta bizitzearen” logika onartzen du.

Hori egitea zailagoa gertatzen da bestea baztertuta sentitzen denean. Sistemak ezartzen dituen mailak gainditzeko elkarriketa eta berdintasun gehiagoko espazioak erabiltzea utopikoa edo artifiziala iruditu daiteke. Baina boluntarioen esperientzia horiek ekarpen eta keinu sinboliko probetxugarriak egiten dizkiete bai Iparraldeari eta bai Hegoaldeari.

Sistemaren aurreko askatasunarekin eta malgutasunarekin gazte garaian bizitako esperientzia horiek boluntarioen bizitza eta haien ingurukoena baldintza dezakete.

- **Bigarren erronkak**, berriz, profesionalki eta teknikoki eraginkorra izatea eskatzen du, boluntario baten laguntza eskatzen duten lekuetako garapen-proiektuen behar zehatzei erantzuteko.

Kultura arteko elkarlan horretan, Iparraldeko boluntarioak, profesionaltasuna izateaz gain, lan egiteko gaitasun zabala, malgua eta sortzailea izatea espero da. Zerbitzuak emateko dauden mugei buruzko espiritu kritikoa izan behar du, eta alde batera utzi paternalismo, mendekotasun edo kultura-transferentzia oro, betiere prozesuak eta errealitateak errespetatuz.

Epe luzean, Iparraldeko boluntarioak Hegoaldeko erakundeen aliatu estrategikoak bihur daitezke, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko truke sozial eta teknologikoaren bidez.

Zerbitzu teknikoari dagokionez, boluntarioak gai izan behar du talde-lanean aritzeko eta beste kultura-eredu batzuetara egokitzeko hainbat arlotan: funtzionamendua, denboraren erabilera, komunikazioa, diziplina, gardentasuna, arlo profesionalaren eta pertsonalaren balorazioa. Ez da dirudien bezain erraza. Atzerrikoa dena neurritz gain baloratzen da, eta beharrezkoa da bertakoa lantzea eta baloratzea.

Boluntarioak konturatu behar du solidaritatea beharrezkoa dela baliabiderik edo teknologiarik ez duten taldeetan, eta mendekotasunik sortuko ez duten irtenbideak bilatzen lagundu behar die. Halaber, ez da egokia kanpoko laguntza justifikatzen aritzea, proiektuek dituzten zailtasunak aitzakiatzat hartuta. Elkarren artean, testuinguru globalaren menpe dauden errealitateetan egin beharreko aldaketa zailei irtenbideak bilatzen saiatu behar dugu. Espazio txikietan borrokatzea da gure lana.

Bi erronka horien bidez, Iparraldeko boluntarioek “mistika sozial” bat eta kultura arteko elkarriketa bultzatzeko, non, hartu-eman horizontal baten bidez, bi aldeek elkarpenak baloratuko diren. Hala, proiektu bateko kontratupeko lankideak izateaz gain, arlo pertsonal eta sozialeko proiektu handiago baten partaidea izan daitezke.

Bestalde, “protagonista edo lider” papera ez hartzea gomendatzen da, tokikoen garapena oztopatzen duelako.

Prozesu horiek eskatzen duten denbora onartu behar da, pixkanaka egokitzen joateko, diferentziak eta prozesuak menderatzeko, eta zatiketak eragin beharrean, elkarriketarako eta adostasunerako elementu bihurtu behar da.

III. BOLUNTARIOEN BIZITZA PRIBATUA

Boluntarioak bere pribatutasunerako eta autonomiarako eskubidea izan behar du, baina, aldi berean, elkarbizitzarako eta taldeko bizitzara eta lekuko ohituretara egokitzeko gaitasuna izan behar du. Bi alderdi horien arteko oreka lortu behar du boluntarioak.

Hala, boluntarioaren bizitza-estiloa (etxebizitza, arropak, tresnak, bidaiak, gastuak...) “luxurik gabekoa” eta solidarioa izatea baloratzen da. Onartu behar da boluntario inkulturatuaren “bizitza-estiloa” bera adierazgarria dela, eraldaketa eta prestakuntza pertsonalerako balio duela besteekin dituen harremanak hobetzeko, sistema kontsumista kritikatzeko modu bat dela, eta bizitzatik komunikatzeko eta hitz egiteko nahia adierazten duela.

Denbora librean, berriz, herritarrekin dituen harremanetan, irekitasuna, jakinmina, gardentasuna eta kultura arteko trukerako pazientzia izan behar ditu boluntarioak. Boluntarioen etxeek ez dute bihurtu behar “espainiarren udaleku”; boluntarioek jator jokatu behar dute, ateak ireki eta beren kultura besteekin partekatu behar dute harreman anaikor eta horizontalen bidez.

Bestalde, oreka bilatu behar da: ona da “erroak botatzea”, bihotz eta arimaz aritzea, sareak edo kontaktuak lortzeko harreman onak egitea, baina, aldi berean, distantzia bat gorde behar da, eta boluntarioen “behin-behinekotasunaz” ohartu.

Esperientzia honi zukua atera behar zaio, agian, bizitzan parekorik izango ez delako, baina “etxera itzuli” behar dela ere jakin behar da, boluntario gehienek

egingo duten bezala. Boluntarioari beti geratuko zaio bizitakoaren aztarna, eta, aldi berean, beste leku batean bizitzeko askatasuna irabaziko du. “Inkultrazio” horren eraginez, zailagoa egiten da etxera itzultzea, boluntario-lanari ekitea baino.

Mendekotasuna sortuko duten familiako konpromisoak edo konpromiso afektiboak (ekonomikoak, familiakoak...) ez hartzea gomendatzen da (haurrak besoe-takotzat hartzea, laguntza ekonomikoak ematea...), sen onak eskatzen duen kasuetan salbu.

Arlo afektiboari dagokionez, hau hartu behar da kontuan:

- Heldutasun afektiboa bilatu behar da: alde batera utzi behar dira haurren sentimentalismoak, jarrera dramatiko edo depresiboak, egozentrismoak eta protagonismoak eta, aldi berean, ez da hartu behar jarrera bihozgabe eta arrazionalistatik pobreen egoeraren aurrean.
- Ohiturak, kortesiazko formak, harremanak, antolaketa-egiturak (batzuetan autoritarioak) errespetatu behar dira. Horien aurrean kritikoa izan behar da, baina, aldi berean, ulerkorra eta tolerantia.
- Kontuz ibili behar da liberelegi ez jokatzeko (drogen kontsumoan, bizitza sexualean, zaletasunetan), tokiko ohituren arabera eskandalagarriak izan baitaitezke.
- Krisi- eta bakardade-uneak bizitzeko ere prest egon behar da (bikotea, familia, kultura...).
- Boluntario-lanak irauten duen bitartean bikote-harreman serioak sortzea ere saihestu behar da. Ohikoak izaten dira inkultrazio handiaren ondorioz edo gehiegi engaiatzeko tentazioaren ondorioz. Izan ere, testuinguru berezia sortzen da horretarako: boluntario gaztea, etxetik kanpo, etorkizuneko erabakiak hartzeko irekitasunarekin. Eta hori aukera bat da, baina, aldi berean, arriskua.
- Leku batzuetan, hainbat boluntarioren eta tokikoen arteko bikoteak sortu dira, eta “ezkontza-agentzien” itxura hartu dugu. Batetik, badirudi “pobreak gehiago maitatzeko” aukera ematen duela horrek, baina, bestetik, “gizarte-an gora egiteko eta atzerrian familia izateko” aukera sortzen du.

Boluntarioaren bizitza pribatuari buruzko beste bi alderdi daude: bizikidetzeta eta inkultrazioa.

Bizikidetzari dagokionez gardentasuna eta besteei (boluntarioak, bikoteak eta hurbileko pertsona inpartzialak) entzuteko gaitasuna beharrezkoa da.

Bestalde, garrantzitsua da boluntarioak Espainiako, atzerriko edo tokiko beste boluntario batzuekin komunitatean bizitzeko gaitasuna izatea, elkarrekin partekatu behar baitituzte etxea, jana, bizitza, bainugelak eta erantzukizunak.

Hala, etxeko lanak egiteko, erantzukizun komunak hartzeko eta elkarbizitzarako jarrera ludikoak hartzeko gaitasuna izan behar du boluntarioak.

Eta tokiko pobreekin bizitzeari dagokionez, boluntarioak ahalik gehiena aprobe txatu behar du, aukera paregabea baitu bizitzaren eta esperantzaren kultura arteko trukea egiteko. Gure kulturen “espiritua” deskubritu behar dugu.

Inkultrazioari dagokonez kulturarekiko erabateko atxikimendua edo erabateko mespretxua agertzen duten jarrerak saihestea gomentatzen da, truke pertsonal, sozial, kultural, politiko edo erlijioso horretan

Gehiegizko inkultrazioa ez da gomendagarria –beste kultura, hizkuntza, arropa, ohiturak... kopia nahi izatea–, alegia, diferentziak ezabatzea, eta, egokitu beharrean, tokiko bihurtu nahi izatea. Kultura-nabarmenkeria dela iruditu daiteke.

Halaber, kulturaren kanpoko itxuraren atzean, giza harreman injustuak –giza eskubideak, emakumeak, pobreak edo baztertuak gehiago edo gutxiago errespetatzen dituztenak– ikusten jakin behar da. Harreman horiek deskribatzen eta hitz egiten jakin behar da, guk geuk aldaketak egiteko asmorik izan gabe.

IV. BOLUNTARIOEN ESKARIA ETA ESKAINTZA

Boluntarioen bidalketarekin lotura duten hainbat puntu nagusi aurkezten da ondoren:

- Boluntarioen trukea Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremanak gizatiarrago bihurtzeko “kultura arteko politika” iraunkor bihurtu daitekeen aztertu behar da.
- Boluntarioen bidez, alde guztiek onurak atera behar dituztela onartu behar da, "behar errealetatik" eta behar den laguntza profesionaletik abiatuta, kultura arteko aberastasuneraino.

- Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko "ekonomia-erlazio injustuak konpentsatzeko eta zuzentzeko" modu gisa hartu behar da boluntarioen lana. Zubiak eraiki behar dira, harremanak sendotu, lankidetza anaikorragoa –ez hain teknikoa– bultzatu, eta erakundeak, gobernuak, GKEak eta elizak boluntario-mistika horrekin lotu behar dira.
- Lankidetza-proiektuetarako aurrekontuaren zati bat gordetzea gomendatzen da, boluntarioak bultzatzeko eta harreman zuzeneko bidaiak egiteko (finantza-agentzien, GKEtako langileen... artean), hala, ezagutza paraleloko boluntario-lanak egokitzeak. Horrenbestez, lagun-taldeak, komunikazio-espazioak eta lankide-harreman gizatiarragoekin osatutako sareak sortzen dira.
- “Mistika soziala” eta “aldaketarako beharra” eraikitzeak, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremanak justuagoak izateko, gazteek laguntza berezia eman dezaketela aitortu behar da, boluntarioek Hegoaldeko injustiziak bizitzen dituztelako.
- Halaber, komenigarria da Hegoaldeko boluntarioak baloratzea eta haiekin esperientziak trukatzeko, kultura arteko elkarriketaren bidez, proposamen eta mistika komun bat eraikitzeak.
- Horrez gain, balioa eman behar zaio pobreek beraiek egiten duten boluntario-lanari: hainbatek solidaritate-programetan (emakumeei, gazteei... buruzkoak) hartzen dute parte doan.
- Boluntario-esperientzia laburrak, kultura arteko truke serioa lortzen ez dutenak, aztertu behar dira. Laguntza eta zerbitzu zehatzak ematen dituzte, baina esperientzia horietan ez dago bi aldeek arteko asimilazio- eta truke-prozesurik.
- Garapenerako eta pobreziaren aurkako zerbitzuekin batera, sektore pobretako gazte edo profesionalen “gidaritza soziala bultzatzeko” politikak sustatu behar dira.
- Tokikoen aldaketan edo gidaritzan ekarpen handiak egin ditzaketen leku eta taldeei lehentasuna eman behar zaie, bazterketa gaindituz eta hiritartasun-eskubideak gauzatuz. Alegia, lehentasuna eman behar zaio aldaketa sor dezaketen eragileen prestakuntzari, egoera arazotsuak arintzera mugatu gabe.

- Halaber, lehenetasuna eman behar zaio tokiko kulturak edo kultura mestizoak (andeetakoak, oihanekoak edo bestelakoak) indartzen dituen esperientzia orori, eta Iparraldeko munduarekin harremanetan jarrita, bakartu gabe.
- Giza eskubideen arloko gaiak berrikusi behar dira, eta emakumeen, gazteen eta kulturen zereginari balioa eman.
- Motibazioaren eta bestelako aukera pertsonalen bidez, boluntarioek egin dezaketen ekarpenari balioa eman behar zaio, pertsonak aldatzeko, kontzientziatzeko eta uste sendoak sortzeko balio baitezakete. Horrela hasten dira aldatzen familiako, gizarteko eta erakundeetako egiturak. Horretarako, boluntarioek beren esperientziari buruzko ebaluazioak eta hausnarketak sistematikoki egin eta zabal ditzaten bultzatu behar da, bai eta, etxera itzultzean, segimendu-taldeetan parte hartzera bultzatu ere.
- Oso garrantzitsua da itzultzen direnei laguntzea. Izan ere, bizitakoa partekatzeko espazio gutxi aurkituko dituzte, eta hori etsigarria da. Beraz, boluntarioei nola lagundu eta ekarritako bizipenak eta indarrak nola aprobetxatu pentsatu behar da.

V. BOLUNTARIOEN HELBURUAK BERRIKUSTEN

- “Justizian eta solidaritatean oinarritutako kultura berri bat” bilatzeko helburuari buruz hausnartu behar da.
- Iparraldeak indar mediatiko handiegia duela aitortu behar da: komunikabide sozialek mendebaldeko eredia inposatzen dute, bereizkuntzarik gabeko globalizazioan oinarrituta.
- Eredu neoliberalaren logika zalantzan jarriko duten esperientzia alternatibok proposatu behar dira. Polobakarreko munduak pobrezia, zatiketa eta indarkeria baino ez du ekartzen.
- Helburuetako bat "gizartea eraldatzeko balio berriak izango dituzten aldaketa-eragileak prestatzea" izanik, kontziente izan behar da boluntario-lan hau deserosoa izan daitekeela sistemarentzat.
- Aldaketa gisa zer ulertzen dugun zehaztu behar da. Gure lankidetzak ez baditu zalantzan jartzen Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko garapen-

egitura injustuak, geure buruak ebaluatu beharko ditugu, eta gure esperientziei eta kezkei buruz eztabaidatu beharko dugu. Sistema zalantzan jartzen ez duten boluntarioak, agian, ez dira babestuko.

- “Solidaritate” kontzeptua birformulatu behar da, zeren, lankidetzarako prestatutasuna adierazten duen arren, gaizki ulertzen bada, gure helburuak hutsaldu baititzake.
- Ematen eta hartzen duenaren irudia gaingitu behar da. Bi aldeak elkarlanean eta elkarrekin ikasten jartzen dituen trukea eta kulturartekotasuna sustatu behar da. Baina distantziak oso handiak badira, hori ere utopikotzat har daiteke.

“Boluntarioaren bizitza balioekin eta uste osoekin aldatzeko” helburua abasgarria da, baina helburu hori sistematizatu egin behar da, eta Iparraldeko eta Hegoaldeko erakundeetara eramanez, boluntarioak lortutako aberastasun partikular gisa geratu gabe.

Esperientzia guztiak –ez soilik indarririk eta alternatibarik gabeko irudi filantropiko eta erromantikoak– zabaltzea da boluntario-lanaren propagandarik onena.

“Errealitatearekin harremanetan jartzea errazteko” helburua egokia da, betiere, harekin batera, azterketa-esparru teoriko bat lantzen bada, zentzu kritikorekin eta kulturekiko eta errealitatearekiko errespetatuarekin.

“Boluntario-lan hezitzailea eta prestatzailea” lortzeko helburuari dagokionez, kontuan izan behar da pertsona, talde eta erakundeen arteko elkarrekintzaren bidez lortzen dela prestakuntzarik onena eta hori dela boluntarioaren benetakoa “laguntza”.

Dena den, laguntza horren ezaugarriak aztertu behar dira, benetakoa eta probetxugarria izan dadin. Hegoaldean, askotan, huts egiten dugu laguntza pertsonal hori ematean, lanpetuegi gabiltzalako edo behar duen garrantzirik ematen ez diogulako.

Arriskutsua izan daiteke arazoak konpontzeko pragmatismoa gaingitzea, indibidualismo profesionala eta ebaluaziorik ez egitea, arriskuan jartzen baitute “faktore gizatiarra” eta boluntarioaren prestakuntza.

Goi-mailako edo eragin handiko klaseetako Iparraldeko boluntario gazteak bultzatzea komeni den aztertu behar da, bizitzak seguruenik eskainiko ez dien boluntario-lana egin dezaketela kontuan izanda. Inguru pobreekin harremana izateak eta sistemaren aurreko ikuspegi kritikoa hartzeak aldaketaren eragile eta Hegoaldearen aliatu bihur ditzake gazte horiek.

Azkenik, aitortu behar da boluntarioek ekarpena egin dezaketela gure gizarteko –Iparraldekoa nahiz Hegoaldekoa– familiak, taldeak, erakundeak eta egiturak gizatiarrago bihurtzeko. Esperientzia pertsonal eta instituzional horiek gabe, oso zaila izango litzateke hori lortzea, eta, halaber, zailtasunak izango lirateke guztion eta guztiontzako gizarte justu, aske eta anaikorrerantz pausoak emateko balio duten esperientzia bizigarri eta hasiberri horiek gune erabakitzaileetan zabaltzeko.

Fe y Alegríaaren ekarpenak. Venezuela

Juan Carlos Escalona*

“Gizateriak ezjakintasuna, miseriaren ama, garaitzeko duen indarrik handiena giza baliabideak dira. Ez dago naturan gizakiaren eta haren ekintza argien eta iraunkorren pareko energia-iturririk.”

José M. Vélaz, sj. *Las distancias matan, y otros escritos*, s. f.

Fe y Alegría, Venezuelan, erakunde aitzindaria da. Erakundearen sorkuntzan, eragin zuzena dute boluntarioek, bestearen onarpenak eta itunek –herritartasuna sendotzeko gai den gizarte-ehuna eraikitze itunek eta premia gehien duten pertsonak hezkuntzara bideratuz justizia eraikitze itunek–. Erakundearen aktibo nagusia jendea da, hori da gure indarguneen eta ahulezien gakoa. Fe y Alegría liderra da Venezuelan, kudeaketa eraginkorra, premia gehien duten sektoreekiko leialtasuna eta hezkuntzako eta gizarte-sustapeneko lana direla eta.

Fe y Alegría, herriaren hezkuntza integralaren eta gizarte sustapenaren mugimendu gisa, topaketa askoren eta mota askotako ekarpenen emaitza da: sektore behartsuetako biztanleak, oinarritzko komunitate-erakundeak, boluntarioak, erlijio-kongregazioak, enpresa pribatuak, nazioarteko kooperazio-erakundeak, erakunde publikoak eta gobernu-erakundeak... Esan daiteke topaketa eta itunak erakunde gisa dugun egitekoaren zati direla; pertsona behartsuenen heziketaren

* Juan Carlos Escalona Venezuelako Fe y Alegría bertako eta nazioarteko boluntariotza arduraduna da.

bitartez, gizarte aldatzea dugu xede, eta, horretarako, gizartean sartzeko egoera egokia sortu behar da. Hori lortzeko, baina, **gure prozesuak eta heziketa-zerbitzuak etengabe hobetu behar ditugu.**

Aipatutakoaren arabera, Fe y Alegríak egiten duen itun orok iragazki hori izan behar du. Hori kontuan izanda, nazioarteko boluntarioek, Fe y Alegrían, elkarrekin hazteko apustua dakarte, bai esperientzia egiten duen pertsonaren zerbitzuan, bai jasotzen duen zentroaren zerbitzuan. Irekitzea dakar, gure indargunek eta ahuleziak ikusi ahal izateko eta, horrela, heziketa-proiektu bat eraikitzeko edo sendotzeko. Proiektu horretan, boluntarioek daukaten onena ematen dute, izanaren, egiten jakitearen eta bizikidetzaren dimentsioetan, modu osagarrian eta loteslean bizi izanda.

Beste kultura batetik datorren pertsonaren lekuan jartzea dakar. Pertsona horrek laguntza iraunkorra eta apurkakoa behar du, eta argi adierazi behar zaio bere lan boluntariotik zer espero dugun eta zer zeregin esleituko dizkiogun. Bestalde, boluntarioari eskatzen zaion ekarpenak erabat esanguratsua izan behar du izena ematen duen heziketa-proiekturako; medularki, proiektuaren dinamikaren barne egongo da. Hortaz, argitasuna eta berariazkotasuna ezinbestekoak dira eskatzen diren profiletan, eta Fe y Alegríako beharrekiko eta aukera estrategikoekiko egokitasuna ere. Horretarako, derrigorrezko erreferentzia da Venezuelako Fe y Alegríaren Plan Globala. Hala, ezinbestekoa da egiten jakitearen dimentsioa.

Kultura ezberdinetako pertsonekin lan egiteak sekulako aberastasuna ematen dio Fe y Alegríari. Hori indargune handi bat izan dadin, elkarrenganako errespetuaren dimentsiotik abiatu behar da, eta “bizikidetzan, beste pertsonari zilegitasuna eman” (Humberto Maturana). Dimentsio horrek esan nahi du boluntarioak nahiz erakundeak norabide horretan hazi nahi dutela. Elkarriketa iraunkorraren, eztabaidatzearen, hasiera dakar; gakoa onarpena da. Esplizitua izan behar du, eta ez da ulertutzat eman behar. Funtsezkoa da entzute aktiboa bizitzarako jarraitatzat hartzea, eta baita etengabe ahazteko prest egotea ere.

Erronken artean, lekuan bertako laguntza eta prestakuntza nabarmentzen dira; horrela, boluntarioak esperientziari zentzua eman diezaioke, aberasgarria izan dadin eta bere bizitzan eragina izan dezan. Beraz, Fe y Alegríak gai izan behar du boluntarioei heziketa-laguntza eskaintzeko, haren bizitza-proiektua aberastuko eta elikatuko duten hausnarketak sor daitezen. Laguntza-tarte horietan, zenbait boluntariok egin behar dute topo, elkarrengandik ikas dezaten eta elkarren esperientziak balioetsi ditzaten. Beraz, talde-erreferentzia ezinbestekoa da bolunta-

rioaren etengabeko prestakuntza-prozesuan. Pertsona izatearen aldeko apustuak dira laguntza eta elkarrenganako errespetua.

Gauzak egiteko dugun modua, gure “lan-metodologiaren” *abc* edo *mapa*, boluntarioei erakustea helburu dugu, boluntarioarentzat erabilgarria izan dadin gure izateko era eta jarduteko era ulertzen hasteko eta, batez ere, balioesteko. Hala eta guztiz ere, gehien balioesten duguna da (gurekin batera) gure jendearen errealitateari itxaropenez begiratzea, sormenarekin eta grinarekin aukerak eraikitzen laguntzea eta beren esperientziaz “munduan...” eta beren etorkizunean (bizitza erabakitzen duten lekuan) leku bat egitea. Denok barne hartzen gaituen bizikidetzaren dimentsio bat da.

Material Osagarria

Xer ikuspegi dute gaiaz gurekin ibili berri diren boluntarioek/bekadunek?

Boluntarioaren profilari dagokionez	Sendotu, mantendu eta esperimentatu beharko genukeenari dagokionez	Prestakuntzari eta gaitzeari buruzko alderdiei dagokionez
<ul style="list-style-type: none"> • Beste kulturetarantz zabaltzea. Guztiz ezberdina den errealitate batean integratzea eta ikastea. Hango tradizioak eta ohiturak ikastea. • Problematikak erlatibizatzea eta errespetatzea, komunitateetatik baztertu gabe. • Entzuten jakitea. Apaltasuna. • Pazientzia, hizkuntza eta mintzatzeko era ezezagunera moldatzeko. • Konfiantza eraikitzea. • Barne egotea. • Ustekabeei konponbidea era praktikoan eta sortzailean aurkitzeko gai izatea. Besteek arazoak noiz konponduko zain ez egotea. Irtenbideak bilatzen laguntzea. Ekarpinak egitea. • Bizitako esperientziatik eta trebakuntzatik etengabe ikastea. • Egiten dugun proiektuarekin identifikatzea, eta partaide izatea. 	<p>Premia bezala ikusten dute:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Laguntza eta jarraitutasuna. • Aldian behingo ebaluazioak. Egitekoen kontrol eta gainbegiratze handiagoa. • Boluntarioaren errealitate eta profil bakoitzari egokitutako prestakuntza. • Ondo antolatutako lan-plana, pertsonen gaitasunei etekin handiagoa ateratzeko. • Eginkizunak zehatz azaltzea. • Beste boluntarioen errealitateak ezagutzea. Esperientzia-trukea sustatzea. • Harrera beroa mantentzea, ateak zabalik izatea eta askatasuna. 	<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza, mintzaira, keinuak... ezagutzea. Lan egingo den kulturaren ahozko eta ez-ahozko komunikazioa. • Harrera egiten duen erakundearen lan-metodologia ezagutzea. • Jatorrizko lekutik irten aurretik, alde z aurreko oinarritzko prestakuntza. Norbera, norberaren herrialdea eta hegoaldeko herrialdeen errealitatea ezagutzen laguntzen duen prestakuntza. • Tokian tokiko errealitateari buruzko prestakuntza espezifikoak, behin helbidera iritsitakoan integratuko dena. Ezberdina da herrialde baten ikuspuntua hara iritsi aurretik.
<p>Lan-mahaiaren osaera: Eva Reviriego (ALBOAN DEMA, Espainia), Tomoyuki Muzuguchi (JICA-JOCV, Japonia), Oscar Valle (Entreculturas-VOLPA, Espainia), Lara Argenta (Inter Agire, Suitza) <i>“Boluntarioak, bide bat herritartasunaren eraikuntzarantz I. topaketa nazionala”</i>, 2005eko urria.</p>		

Virgen de los Dolores etxearen (HVD) ekarpenak. Venezuela

Antonio Planelles eta Guillermo Beaumont

HVD ERAKUNDEAREN BESTE AURPEGIA: BOLUNTARIOA – KOOPERANTEA

Nazioarteko boluntario izatea partekatzearen eta elkarrekin bizitzearen aldeko apustua da, doakotasuna eta kultura arteko elkarriketa lortzeko gakoa. Nazioarteko boluntarioak, zentzu zabalean hartuta, aldez aurreko prestakuntza duten **KOOPERANTEAK** dira, eta erakundearen garapenari egindako ekarpen esanguratsua dela-eta, oso egoera preziatua eskaintzen digute.

Borondatez eta gogoz egiten duena da boluntarioa, edozer gauza espontaneoki, jakinaren gainean, asmo onez, aldez aurretik pentsatuz, gurariz edo apropos, borondatez egiteko prest dagoena. Ondorioz, nazioarteko akordioak betez laguntza profesionala behar duen herrialdera bidaltzen den pertsonari deritzo **KOOPERANTE**.

ZER ADIERAZTEN DU KOOPERANTEAK ETA ZER EKARPEN EGITEN DU ETXEETAN?

Zenbait proiektutarako, kooperanteak eskatzen dira, proiektuen jarraipena ziurtatzeko. Horrek, tokian tokiko boluntarioekiko ezberdintasuna adierazten du;

¹ Antonio Planelles eta Guillermo Beaumont Venezuelan dagoen Virgen de los Dolores etxeko arduradunak dira (www.hvd.org.ve).

izan ere, azken horiek denbora eta leku aldetik mugatuak daude, bertakoak direlako eta inguruak berez dituen erantzukizun eta konpromisoengatik.

KOOPERANTEA kultura arteko elkarriketaren adierazlea da eta zenbait heziketa-baliabide interesgarri eskaintzen ditu. Gaur egun, **immigrazio- eta globalizazio-gertakariak** pil-pilean daude, eta kulturen arteko topaketari eta elkarriketari heltzen dien lan zabal baten beharra azaltzen da.

BESTE KULTURA BATEKO PERTSONEKIN LAN EGITEKO HELBURUA

Kultura arteko elkarriketa da gakoa. Hortaz, beharrezkoa da, zereginen aurrean, gure bizimoduaren eta gure kulturaren, moldagarritasuna eta ulermena lortzea, eta alderantziz. Nazioarteko boluntarioen ondorioz sortzen den antolamenduarien, trebakuntzaren eta laguntzaren hausnarketa eta ikaskuntza egiteko aukera lortzea da.

Errealitatea aztertzea da xedea. Adibidez, gizarte-mailan, aldi baterako soilik egoteak, batzuetan, etxeko eta kanpamentuko dinamikaren barruan, arauak ezartzea oztopatzen du, onberagoak eta adeitsuagoak izateko joera argia erakusten baitute. Hala eta guztiz ere, eskumen-esparru bat lortzea da helburua, beharrezkoa baita kultura arteko elkarriketarako eta heziketa-baliabide interesgarriak eskaini ahal izateko kultura ezberdinekiko elkarriketan dihardutenei, bai nazioarteko boluntarioekin lan egiten duten erakundeei, bai etorkinekin lan egiten duten erakunde, ikastetxe edo bestelakoei.

ESKERRIK ASKO KULTURA EZBERDINEN EKARPENENGATIK

Beste zenbait testuingurutan eskuratutako esperientziak –tokian tokiko ezauzgarrien arabera ezarriak– aplikatzeko garaian, HDVn, bisitan etorritako kooperante gazteek, oro har, arlo akademikoko ezagutza zuten, eta hori baliagarria zen etxeetako biztanleei kalkuluaren, irakurketa-ulermenaren eta irakurketa-idazketaren arloetan laguntzeko, ez baita desberdina gaztelaniadun herrialdeetan. Opor Plana osatzeko proposatutako programazioa aberasteko estrategiak ekarri zituen osagai horrek. Kontuan hartzekoa da, halaber, udalekuetako esperientzia, olgeta, jolas, dinamika eta talde-koordinazioko arloei ere aplikagarria.

Esperientzia horien adibideetako bat, onuragarria, fisioterapiari aditua zen kooperanteetako batena da. Espzialistak edozein lesio arin tratatzeko ahalmena

zuen, eta, era horretan, ospitaleko larrialdietara egin beharreko bidaiak gutxitu ziren. Laguntza horren bitartez, onuradunek eta langileek, aldi berean, masaje lasaigarriei buruzko zenbait ezaguera bereganatu zituzten.

2004urtean Virgen de los Dolores etxean (HVDn), **ALBOAN** erakundeak Euskadiko Gasteek Lankidetzan programari ateak ireki zizkion. Horrela, amets bat gauzatu ahal izan zen: “Ongi pasatzen dut eta lkasten dut” Opor Plana, hau da, arriskuan dauden haur eta nerabeei arreta eskaintzen jarraitzea. Plan hori etxeetan eramaten da aurrera, eta, oporretan, garapen pertsonalari dagozkion arloak hainbat mailatan sendotzearen bidez, estimulu eskolako estimulu akademikoarekin jarraitzen da: irakurketa-idazketa eta kalkulua, oporretako jolasekin eta denbora-pasekin batera.

“Ongi pasatzen dut eta lkasten dut” Opor Planak hainbat jarduera hartzen ditu barne, izenak adierazten duen bezalaxe; akademikoak eta aurretik programatutako jolas-jarduerak tartean. Astez aste, haurrek eta gazteek osatutako populazioarekin, ekintzak egiten dira, etxeko prestakuntzarako funtsezkoak diren prozesuetan barneratuz. Populazio horrek, dituen ezaugarriak direla eta, aldeztu aurreko prestakuntza eskatzen du, eta ekintza egokiak behar dira, sendotu nahi diren portaerak bultzatzeko eta eragotzi nahi direnak aurreikusten saiatzeko.

Gaur egun 2007 urtean beharrezkoa da nabarmentzea HVD erakundeak:

- gizartearen behar batzuei erantzuten diela,
- baliabiderik ez duela,
- profil baxuekin lan egiten duela. Horrek esan nahi du datozenek poztasuna eta barneko esker ona eskuratzen dutela egindako lanarengatik.

Kooperanteak Opor Plana bereganatzea da helburua: urte osoan zehar planifikatzen da, eta, haiek iristerako, proposamen zehaztu bat izaten da. Lehenengo bi asteetan, gutxi gorabehera, ildo orokorrak, osagai zehatzak, errespetatzen dira, eta gauza onak gehitzen dira; adibidez, esperientziak, gaitasunak, plana dinamizatu ahal izateko ezaguerak. Bereziki, arlo akademikoan eta kirol-arloan eta horren funtzionamenduaren dinamiketan.

Kooperanteari gomendio hauek ematen zaizkio: uraren erabilerari dagokionez, osasuna zaindu behar du; eguraldiari men egin behar dio, hidratazioa dela eta; kalean jatea eragotzi behar du; eta kaleko arriskuak saihestu behar ditu.

HVD-ren ustez, esperientziak ondorengo aukerei erantzuna ematen die:

- Kooperanteek lanaren sistematizazioaren bitartez dakartzaten esperientziak onartzea eta denboran zehar mantentzea.
- Kooperanteen txandakatzea sustatzea, erakundearen entitate operatiboen barruan, esperientzia-trukea aberasteko asmoz.

Denbora honetan identifikatu ditugun lorpenak hauek dira:

- Etxeko dinamikan berehala hastea, elkarrekintza errazten baitu.
- Kooperanteak programez “jabetzea”, eta Opor Plana bere egitea, arlo akademikoan eta olgetarako arloan, prozesuarentzat aberasgarriak diren elementuak egoki erabiltzeko eta sartzeko.

ETA URTE OSOAN ZEHAR “KOOPERANTEAK” EDOTA BOLUNTARIOAK IZANGO BAGENITU?

HVDk lanez gainezka ditu langileak, populazio onuradunari arreta eskaintzeko. Kooperanteak integratzea oso ondo dator, ez ordezkatzeko, baizik eta sendotzeko eta integratzeko, eta zama arinagoa egiteko. Beharrezkoa da, ordea, boluntario horiek profil bat betetzea: gure etxeetan bizitzea, astean jaieguna bat izatea, oporrak komeni denaren arabera hartzea eta osasun-asegurua bermatua izatea.

Kooperanteekin harremana eta lotura izateak ekarri du beste errealitate baten ezaguera eta elkar aberastea. Dinamika propioa garatzen ari da. Onuradunek, seme-alaba zaharrenek batik bat, eredu bat izan dute. Erakundeak aditu bat nahi du komunitatearekin proiektuak garatu ahal izateko.

Virgen de los Dolores etxea erakundea Venezuelako Bolibartar Errepublikan dagoen errealitate gogorrari erantzuteko sortu zen. 60 urte baino gehiago darmatza estatuan premia gehien duen populazioari –haurrak eta gazteak– zerbitzua ematen, eta berealdiko zailtasunak dituzten haurrengan eta gazteengan eragina duten arazoei heltzen die lehentasunez. Gure onuradunen bizi-baldintzetan funtsezkoak eta jasangarriak diren aldaketak bultzatzen dituzte gure ekintza guztiek.

HVDk garrantzi handia ematen die gure proiektuen onuradunekin zuzenean lan egiteko bidaiaitzen duten kooperanteei, beren esperientziaren arrastoa uzten dutenei. Beraz, erakundearen beste helburuetako bat bihurtu da beren denbora gure proiektuen onuradunekin erabiltzeko prest daudenak erakartzea eta hezteia eta horiei laguntza ematea.

Duela 4 urte erronka handia zen guretzat kanpotik etorritako kooperanteak jaso eta integratzea gure langileekin eta neska-mutilekin aste osoan zehar eguneko 24 orduak igarotzeko. Duela 4 urte, ez ginatekeen ausartuko luzaroko esperientziekin. Azken 3 urteak ikastaldia izan dira, bai guretzat eta baita gure neska-mutilentzat ere.

ERRONKAK

Borondatezko lankideentzako:

- Boluntarioen esperientziak balio izatea gauza berriak ezagutzeko eta pertsona hobea bihurtzeko aukera gisa. Sortzen erraza den nagusitasun-sentimendua gainditzea. Aldamenekoak ere garrantzia duela onartzea. Horretarako, **bakoitzaren errealitatetik abiatu** behar da, eta jakin-min kaltegarririk eta errukirik gabe ezagutu.
- Onartua izatea edo gutxiagotasun-sentimenduaren proiektzioaren bitartez “horiena izatea” nahi duen haurren edo nerabearen jokoa ez erortzea edo botere-gatazketan ez sartzea. Azken hori lehenengoa bihurtzen da, muturreko kasuetan, jokabide desagokiak direla-eta zentzuzko ondorioak ezarri eta haur edo nerabe bat ekintzetatik kanpo uztean; errukia sortzen da, egoera berriz ebaluatzen da, errealitaterik erakutsi gabe eta hutsegiteak barkatuz, eta gure hurrenganako eta nerabeenganako kanpo-kontrolerako *locus* baten garapena sendotuz.
- “Behetik ez identifikatu”, helburu ez onuragarrien lorpenaren bitartez, jokabide desagokiak sendotu ez daitezkeen: arreta, gutxiagotasun-sentimendua, botere-gatazka... Horri dagokion heziketa-modulu bat gehitzeko beharra.
- Haurra eta nerabea balioekiko eta baliabideekiko sentikor bihurtu, bere errealitatean sor daitezkeen arazoei aurre egin diezaien.
- Kooperanteari irakatsi haurrari eta nerabeari laguntzen arazoak atzematen eta arazo horiei irtenbidea bilatzeko baliabideak aurkitzen.

- Erljio-manifestaldi herrikoietara batzea, edo, gutxienez, horiek errespetatzea, eta, horien bidez, anaiengana hurbiltzearen giza eta erljio-zentzua eta Jaungoikoa aurkitzea.
- Kooperanteek orain arte Opor Plana eskuratzaren eta hartaz jabetzearen artean lortutako oreka mantentzea.

Virgen de los Dolores etxea (HVD):

- Guretzat, boluntarioek edo kooperanteek egiten duten zerbitzuak edo lanak ez lioke garrantzirik kendu behar bizi-zentzua aurkitzeko kooperantearekin batera hausnarketa-giroa sortzeko egin beharreko ekarpenari. Beharrak eskatzen duelako egiten dugu, baina geure baliabideekin erantzutea gustatuko litzaiguke, eta, ordainsari gisa, garai horiek sortzea eskaintzea izango litzateke.
- Esperientziaren “edukian” arreta jartzeaz gain, kooperante bakoitzaren “prozesua” nola doan berrikustea, itxaropenak erregistratuz eta ikasketak ebaluatuz egonaldian zehar.
- Ikastea, errealitate berari aurre egiteko modu berrietara irekiak egotea; adibidez, gurasoentzako epe motzeko helburu espezifikoa dituzten programak sortuz, ohituren gaineko trebakuntza sistematizatuz.
- Esperientziak integratzeko guneak garatzea, lege berrien ondorioz sortutako “derrigorrezko” eta “borondatezko” programekin batera: unibertsitateko ikasleentzako, graduatu berrientzako eta langile guztientzako Zerbitzu Komunitarioaren Legea. Garabidean dauden komunitateen proiektuetan erantzun xenofoboak egoteko arriskuak gainditu behar dira, gizarteak parte hartzeko modu berrien bitartez: Batzorde Komunalak eta gizarte-kontrolariako mekanismoak.
- Boluntarioen esperientzia aintzat hartuta, haien bizitzetan nola eragin duen eta momenturik esanguratsuenak zein izan diren ezagutzea, itzuli eta hila-bete batzuetara.
- Kooperanteari behartsuengan eta zapalduengan Jesus aurkitzeko aukera ematen dioten guneak izatea, ondorioak zuzenean ikustean bidegabekeriak onar ez ditzan sentsibilizatuz.

Gure egoitza-etxeen funtzionamendua

Ohikoa:

- Astelehenetik ostiralera:
 - Etxebizitza, elikadura, ohituren gaineko trebakuntza.
 - Inguruko eskoletara joaten dira.
 - Ariketa bideratuak eta laguntza akademikoa etxean.
- Larunbatetan:
 - Ariketa bideratuak, laguntza akademikoa, irakurketa sustatzea.
 - Hamaiketakoaren ostean, irteera.
- Igandeetan:
 - Itzulera, afaldu aurretik. Partekatzeko eta taldean hausnarketarako tarteak.

Ekintza bereziak:

- Villa Dolores Kanpamentua.
- Inauteriak, Aste Santua, Opor Plana: eskola-oporretan arreta osoarekin jarraitu.
- Tailerrak: UCAB, FTV.

Euskal Gazteria kooperantearen programa

Duela hiru urtez geroztik, uztailetik irailera, hiru hilabetez zehar.

1. Iristean, denak batera biltzen dira egoitza-etxe bakarrean 2-4 egunez: tarte horretan, erakundearen sartzera bultzatzen dira, programa azaltzen zaie eta 4 egoitza-etxeak erakusten zaizkie.
2. Horietako bakoitza egoitza-etxe batean sartzen da, han egiten diren eguneroko ekintzetara ohitzeko: PAHM.

- Jaiki, norberaren garbitasuna, elikadura, ikasketak sendotzea, garbitasun-ohiturak, otorduak, janztea.
 - Ikasketa, olgeta (etxe barruan eta kanpoan).
3. Opor Planaz jabetzea: egoitza-etxeetan hasi eta lehenengo astean, Opor Planaren plangintzaren proposamena ematen zaie: gaiak, ekintzak, edukiak eta hori berrikusteko eta aberasteko materialak, kooperanteen eza-gueren eta esperientzia pertsonalen arabera.
 4. Ingurukoen begirale izateko parte-hartzera bultzatzea, arlo akademikoan eta olgetari dagokionean.
 5. Opor Planaren Koordinazioa, antolaketa eta zuzentzea barne, tokian tokiko arduradunaren koordinaziopean: koordinazioaren eguneroko Plangintza, Gauzatzea eta Ebaluazioa, arloka.
 6. Opor Planaren ondorengo Ebaluazioa.
 7. Atsedenaldia: herrialdearen ezagutza.
 8. Ikasturtea hasi aurretik, etxeetan, haurren eta nerabeen harrera: olgetarako ekintzak.

IGEReko boluntarioen esperientzia. Guatemala

*Héctor Mo**

28 urtean, IGERek, baliabide ekonomiko urriak dituztenei hezkuntza hurbiltzen lan egin du. Komunitateak oso paper garrantzitsua jokatzen du IGERen sistemen barruan, lokalak uzten baititu eta maisu-maistra boluntarioak (irakasle orientatzaile boluntarioak, IOBak) eskuratzen egiten baititu; horregatik, uste dugu gure bihotza eta komunitateen garapena bultzatzen duten eragileak direla boluntarioak.

Herrialde osoan 2.500 IOB daude; %43 emakumezkoak dira, eta %57, gizonezkoak. Adinari dagokionez, %50 21 eta 30 urte bitartekoak dira, eta, %26, 20 urte-tik beherakoak.

2.500 IOB irakasle horiek, estatu osoko 38.000 ikasleri laguntzen diete. Hala, 15 ikasleko orientatzaile bat dugu.

Amaitutako eskolatzeko-mailarik handiena dibertsifikatuari¹ dagokio (%71). Jarraian, bigarren mailako hezkuntza eta lehen mailakoa datoz (%22 eta %5, hurrenez hurren).

* Héctor Mo Guatemalako irratibidezko hezkuntza-institutuko (IGER) koordinatzailea da.

¹ Dibertsifikatua, goi-mailako moduluen edo batxilergoaren baliokidea da.

%2k baino ez ditu bukatu unibertsitateko ikasketak. Dibertsifikatua eta unibertsitateko ikasketak bukatu dituztenen artean, %74k irakasle-ikasketak egin dituzte.

IKASLEEI DENBORA ESKAINTZEN

Astero, irakasle orientatzaile boluntarioak bere denbora eskaintzen du, orientazio-zentroan ikasleen hezkuntza-prozesuan laguntzeko, ebaluatzeko eta atzeraelikatzeko.

Horietako batzuek administrazio-tramiteak egin behar izaten dituzte IGERen eskualde-bulegoetan.

Gaitze-tailerretan parte hartzen dute, material didaktikoak, gaitze gaiak eta ikasleen ikasketak hobetzeko balio duten iradokizun garrantzitsuak eginez.

IKASLEEN ETA IOBEN ARTEKO HARREMANA

Aldaketak sustatzeko konpromisoak bultzatuta, pertsonen eta haien ingurua hobetzeko, ehunka IOBk milaka ikasleri laguntzen diete, eta haiekin solidarizatzen dira etniaz, erlijioaz, ideologiaz... arduratu gabe. Komunitateari zerbitzatzeak dauka garrantzia, batzuek ikasketak bukatzen dituztela ikustearen poztasunak. Gure herrialdeko herrixken kultura arteko bizikidetzaren adierazpena da.

BOLUNTARIOEN JATORRIA

IGERen elkarlanean ari diren zenbait IOB eta ikasleak ez dira komunitate berekoak. Horrek bide ematen digu pentsatzeko boluntarioak beren artean sustatzen direla (pertsonaz pertsona, ahoz aho). Zenbait IOBk IGERen elizaren, gizarte-pastoralen eta GKE-en bitartez bultzatzen dute heziketa-programa. Komunitatearen ekimen horien tartean sartuta egotea mesedegarri gertatzen da IOBek bekak lor ditzaten, ikasleak biltzeko lokalak utz ditzaten eta prestakuntza akademiko hobia duten tutoreez hornitu gaitzaten.

NOLA ERAKARTZEN DITU BOLUNTARIOAK IGEREK?

Erakundeak, komunitateetan, ikasteko aukeraren berri ematen du. Komunitateak parte hartzea eta tartean sartzea erabakitzen duenean ematen zaio hasiera programari. Sarritan, norbaitek jakin-mina duenean eta aurrea hartzen duenean, interesa izan dezaketen gazteekin, nerabeekin eta helduekin harremanetan jar-

tzen da. Talde txiki bat osatu denean, komunitate hori eta IGER adostasun batera iristen dira.

Ikasleak bideratu ditzaketen maisu-maistrak bilatzen ditu komunitateak. Biltzeko leku bat bilatzen du (etxe bat, eskola, herri-aretoa). Erakundeak, bestalde, testu-liburuak, irratik-eskolak eta metodologia jartzen ditu. IOBak gaitzen ditu, eskualde-koordinatzaileen lanaren bidez hezkuntza-prozesua gainbegiratzen du eta baliozkotasun akademikoa ematen du Hezkuntza Ministerioaren aurrean.

IGERen, elkarren arteko lankidetzan, autolaguntzarako laguntzan, sinesten dugu. Badakigu gure ezaguerak, denbora eta borondate ona erabiliz gero, gure herrietako hezkuntzaren egoera hobetu dezakeela. Komunitateak giza aberastasun horretaz ohartuz doaz, hor dugu IGERetik irakasle orientatzaile boluntario bihurtuta itzuli diren ikasleen adibidea.

BOLUNTARIOEN ARGIAK ETA ITZALAK

Argiak

Gaur egun, IOBen %37 IGEReko ikasle ohiak dira. Beren herriari zerbitzatzeko aurrea hartu dute, eta, era horretan, beren komunitateko baldintzak hobetzen laguntzen dute; komunitatetik jasotakoa itzuli nahi dute komunitatera. Nabarmena da IOB horiek direla programarekin elkarlanean denbora gehien egin dutenak.

Boluntarioek ondorio ekonomikoak dakartzate; IOBen laguntzaren balio osoa balioetsiz gero, lortuko genukeen kopuruak erraz gaitutako lituzke IGERen finantza-aukerak. Gaur irakasle orientatzaileei soldata ordainduko bagenie, bihar ez ginateke izango...

Gizabanakoaren ikuspegitik begiratuta, boluntarioak, pixkanaka-pixkanaka, beren maila akademikoa hobetuz doaz, ikasten jarraitzen dute; izan ere, motibatuak sentitzen dira beren gaitasunak garatzeko, alde batetik, eta behar pertsonalei aurre egiteko eta euren komunitateei modu hobean zerbitzatzeko tresna onak edukitzeko, bestetik.

Zenbait IOB komunitate-erakundeetako kide dira; horiek mesedegarri dira jendea erantzukizun-jarreraren eta giza kalitatearen bitartez prestatzeko. Hezkuntza-kalitatearekiko konpromisoa hartu dute, eta, arrazoi berarengatik, irekita daude IGERek hezkuntza-kalitatea hobetzeko egiten dituen proposamenak jasotzeko.

Gure erronka, itzalak

Bertako boluntarioekin egindako ibilbidean, gure arreta behar duten zenbait egoera aurkituko ditugu.

IOB gehienak heziketa-sistema presentzialean prestatu ziren, eta, horregatik, zenbait gabezia dituzte urrutiko heziketa-sisteman eskolak emateko. Hutsune hori betetzeko, gaitzeak, minitailerrak eta laguntza ematen diegu hileroko bisiten bitartez. Bestalde, psikopedagogiako eguneratze-ikastaro bat martxan jartzen ari gara orientatzaileentzat; hiru testuliburu ditugu, gure erakundeak egindakoak. Ekintza horiei laguntzeko zenbait material ekoitzi dugu: indukzio-gidaliburua, IGERen metodologia-liburuxkak, idatzizko materiala, irati-eskolak, orientazio-zentroa, paper didaktikoak eta datuak biltzeko gidak. Gaur egun, gainera, web orria dugu.

IOBen %27k bigarren mailako eskolatzea du. Esaten dute prestatzen jarraitzeko beharra dutela ikasleei zerbitzu hobea eskaini ahal izateko. IGERen, iruditzen zaigu interesgarria dela trebakuntza horretan laguntzea. Horregatik, gurekin ikasten jarraitzeko aukera ematen diegu. Lagunen laguntza bilatzen dugu orientatzaile ikasle horien izen-ematearen kuota betetzeko.

Boluntario izateak mugatu egiten du haien egitekoaren eskakizuna. Zenbait IOBek, boluntarioak direla era arduratsuan onartzeko, motibazio- eta kontzientziazio-lanaren beharra izaten dute. Hori dela eta, gaitze-agendan zenbait hausnarketa sartzen dugu, boluntarioen egiazkotasuna sendotzeko.

Egoera batzuek gure eskuetatik alde egiten dute. Gaitze-datuen galdeketen arabera, urtero, orientatzaileen %40k utzi egiten gaituzte. Arrazoi nagusia lanpostuaren lekualdaketa da. Beste batzuek, berriz, ikasturte bakar batean laguntzeko konpromisoa hartzen dute. Egoera horrek IOB berriak erakartzeko, gaitzeko eta laguntzeko aldira garamatza berriz.

NAZIOARTEKO BOLUNTARIOAK HARTZEA

Duela bost bat urte hasi ginen nazioarteko boluntarioekin lanean. Denbora horretan zehar, erakundean, hamar boluntario aritu dira langile operatiboekin elkarlanean. Gaur egun, nazioarteko lau boluntarioen laguntza dugu; horietako bi VOLPAkoak dira.

ARGIAK

Koordinazio- eta ekoizpen-ekintzen alde.

Nazioarteko boluntarioek sustatzeko eta izena emateko lanetan eta komunitate-etara (horietako asko landa-eremuetan daude) egiten diren bisitetan laguntzen dute, eta gaitze-tailerretan eta eskualde-koordinatzaileekin egiten diren bilere-tan parte hartzen dute.

Oro har, eginkizun operatiboak (lan gisako ardura dute) eta laguntza-eginkizu-nak dituzte. Batzuek irratian ematen dute laguntza; programak ekoitzi eta irra-ti-zerbitzuak sustatzen dituzte. Boluntarioen beren arabera, jarduera horiei esker lortzen dute giza aberastasuna. Jendearekin hainbat balio partekatzen dituzte; besteak beste, elkartasuna, konpromisoa, erantzukizuna, zintzotasu-na eta gardentasuna.

Proiektua iraunkorra izatearen alde. Boluntarioak bi urterako etortzea abantaila da erakundearentzat. Denboraldi horrek tokiarekin, lanarekin, jendearekin, kultu-rarekin, etab. maitemintzea eragiten du. Baina, garrantzitsuena egiten duten ekarpena da. Berehala, boluntarioak gehiago mugitzen hasten dira, eta leku esanguratsua lortzen dute bertako boluntarioen, ikasleen eta laguntza ematen duten erakundeen artean eta IGER taldearen beraren barruan. Beren laguntzaren gizarte-balioespena aurkitzen dute.

IGERen, pozik hartzen dugu boluntarioen laguntza, lan-erritmo egokia bultzatzen dutelako, dagozkien ekintzen ildoan hobekuntzak proposatzen dituztelako eta, eginkizunen komunikazioa eta koordinazioa hobetzeko asmoz, talde-lanean ari-tzeko asmoa dutelako.

Bestalde, nazioarteko boluntarioen laguntza izateak sinetsarazten digu badago-ela beste herrialdeetan egiten ari garenean sinesten duen jendea. Gure herrien izateko era, gure arazoak eta eguneroko lanean adierazten den elkartasuna uler-tzen dute.

Eginez ikasteko bide horretan, denok ikasten dugu bata bestearengandik. Lan-esperientziak partekatzearen eta trukatzearen ondorioz, elkar aberasten dugu. Lan egiteko moduak, zailtasunak, arazoak eta horiek konpontzeko erak trukutzen ditugu. Historia partekatzen dugu, gure herriaren iragana, bizitzen ari garena eta etorkizunerako bidea.

Pertsona ezberdinekin partekatutako bizitza horrek gizatiartu eta aberastu egiten gaitu. Herri bakoitzak bere izateko era du. Ez gara berdinak gure ohituretan; hala ere, balioak, kultura eta portaerak ikasten ditugu.

ITZALAK

Idea horiek guztiak dokumentu honetan biltzean, konturatu ginen IGERen hartzen ditugun nazioarteko boluntarioen gaiari jaramon egin behar diogula. Esate baterako: eragiteko garaia eta proposamenen gauzatzea bermatzeko eskatzen duen laguntza, ideiak errealitate bihurtzea –Guatemalan zerbitzua bukatu duten arren–, horien lanari buruzko aldizkako informazioen trukea eta erakundeari egindako ekarpenaren ezaguera. Laburbilduz, bertako IOBak onartzen ditugun bezala onartu behar ditugu nazioartekoak.

Nekazarien Institutu Nagusiaren (IMCA) ekarpenak. Kolonbia

*Erminsu Iván David Pabón**

ZER EKARPEN EGITEN DIOTE NAZIOARTEKO BOLUNTARIOEK ZURE ERAKUNDEARI?

Ekarpen esanguratsuenen artean, hauek aipa daitezke:

- **KULTURA-TRUKEA.** Kultura ezberdinen arteko kontaktu orok ematea eta jasotzea ekartzen du. Horretarako, beharrezkoa da berdintasun-erlazioa, elkartasun-erlazioa, pareen erlazioa izatea.
- **HARREMANAK.** Bekadun batekiko kontaktuak etorkizuneko harreman bat ekartzen du, bai arlo pertsonalean, bai lan-arloan, bai iparraren eta hegoaren arteko elkartasunari dagokionean.
- **LAN-AHALMENA.** Frogatu da profesional horiek gaitasun handia dutela lane-rako, gorputz eta arima aritzen direla eta ardura handia dutela.
- **AUKERATZE-PROZESUA.** Boluntario batek funtziona dezan, aukeratze-proze-sua funtsezkoa da. Aukeratzen den profilaren arabera izango da bolun-

* Erminsu Iván David Pabónek Kolonbiako Nekazarien Institutu Nagusiko giza sustapenerako lan-taldea koordinatzen du.

tarioaren moldatzea, ekarpena eta prestakuntza. Moldatzeko gaitasun handia izateak prestakuntza ona izateak baino gehiago eman dezake.

KULTURA EZBERDINETAKO PERTSONEKIN LAN EGITEAK ZER ERRONKA ETA EKARPEN IZAN DITZAKE?

Beste kulturetako pertsonekin lan egiteak erronka eta ekarpen hauek izan ditzake:

- **TESTUINGURUAK.** Burua irekitzea eskatzen du, testuinguru kulturalak, gizartekoak, ekologikoak, ekonomikoak eta erlijiozkoak ulertu ahal izateko.
- **DIZIPLINARTEKOTASUNA.** Prestakuntza ezberdinen ondorioz, bai bekadunen, bai lantaldearen profil eta diziplinak kontutan hartzen dira.
- **BIZIERAK.** Bai Europan, bai Kolonbian jokabideak eta bizitza ikusteko moduak beste era batera ulertzeko aukera bat da.
- **PAZIENTZIA.** Bekadunei segizio “espiritual” edo “bizi-segizio” on bat egiteko.
- **IKASKETEN ATZERAELIKADURA.** Nazioarteko boluntarioek helburu handiago bat ekarri dute: berdintasun-erlazio batean ikasketak partekatzea, jasotzen zein bisitatzen duenaren aldetik.
- **SEGIMENDUA.** Egonaldian nahiz egonaldiaren ondoren, bekadunei segimendua egitea erronka bat da aldeentzat.

Encuentros eta boluntariotza-esperientziak. Perú

*Oscar Vázquez**

Hasieratik gazteen borondatezko lana bultzatu duen erakunde bat da ENCUENTROS; horretarako, nazio mailako programak bultzatu ditu eta nazioarteko beste batzuetan parte hartu du.

Gazteen borondatezko lana Perun sustatzeko dugun esperientzian oinarrituta, lau aldi bereiz ditzakegu haren garapenean:

TREBAKUNTZA-BOLUNTARIOTZA

Aldi honetan (1992-2000), ENCUENTROSek boluntario-lanaren esperientziak sustatu zituen gazteen artean, unibertsitateko ikasleen artean batez ere. Helburua zen gure herrialdeko hainbat errealitatearen ezagutza duten herritar gisa trebatzea eta bidegabeko egituren aldaketarekiko konpromisoa harraraztea. Horretarako, epe motzeko (hilabete bateko) eta epe ertaineko (hiru eta sei hilabete arteko) esperientziak antolatu ziren, eta nazio mailako hainbat erakundek, Jesusen Konpainiak batez ere, boluntario gazteak bidaltzen eta hartzen zituzten. Planteamendu horri trebakuntza-boluntariotza deitu zioten, eta esperientziaren alde garrantzitsuena boluntarioen prestakuntza zen.

BOLUNTARIO-GUNEA INDARTZEA

ENCUENTROSek garatu zuen trebakuntza-boluntariotzaren esperientziaren ondoren eta boluntariotza-erakundeen sare bat sortu ondoren, Boluntario

* Oscar Vázquez Limako Encuentros-Casa de la Juventud-eko zuzendaria da, Perún.

Guneak indartzeko prozesu bat bultzatu zen. 2001 eta 2003 artean, boluntario-tzaren kudeaketa-ahalmenaren garapena bultzatu nahi zuen prozesu hark, eta gazteen boluntariotza sustatuko zuen erakundeen nazio-sare bat sortu.

BORONDATEZKO LANA, GARATZEKO ELKARTASUN GISA

2004 eta 2005 artean, ENCUESTROSek borondatezko lanaren ikuspegia berriz hausnartu zuen. Trebakuntza-boluntariotzan irabazitako esperientziari, boluntarioek gara ditzaketen eraginaren ardura gehitu zitzaion. Hau da, boluntariotza, hezkuntza-estrategia gisa ikusteaz gainera, garapenerako baliabide garrantzitsu moduan hartzen hasi ziren. Horretarako, ereduzko proiektu bat bultzatu zen; gazteen boluntario-lana sustatu zen, arrisku-egoeran zeuden haurrekin jardunda indarkeria saihesteko asmotan.

IKASKETA-ZERBITZUA

ENCUESTROSek boluntariotza bultzatu zuen aurreko urteetan ikastetxeetan, curriculumetik kanpoko jarduera gisa. 2006tik ikasketa-zerbitzua garatuz joan da. Estrategia horrek hezkuntza-kalitatea hobetu nahi du komunitate-zerbitzuko esperientzien bidez; komunitatean, hain zuzen, ikasgelan ikasitako ezagutzak erabiltzeko aukera izango dute ikasleek. Nolabait, eskola-curriculumean sartzen da boluntariotza. Gaur egun, ENCUESTROSek estrategia hori bultzatzen du Apurimac-eko nekazari-komunitate txiroetako ikastetxeetan eta “fe y alegría” mugimenduak Liman dituen hainbat ikastetxetan, eta arreta berezia jartzen du ingurumenaren kontserbazioan.

Nazioarteko boluntariotzari dagokionez, ENCUESTROSek Espainiako erakundee-tako hainbat boluntariotza-programatan parte hartu izan du: Madrileko Loyola taldeak eta Volpa, Alboan-en eskutik.

Madrilgo Loyola taldeekin senidetuta dago ENCUESTROS, eta, horren ondorioz, boluntarioak hartzen ditu haren lan-dinamikan sartzeko. Bestalde, boluntarioek Cuscon parte hartzeko lotura gisa baliatzen da senidetze hori.

Volpa-ri esker, boluntarioak hartu ditu ENCUESTROSek bere programetan eta lan-lerroetan lan egiteko.

Oro har, Loyola taldeetako eta Volpa-ko boluntarioen ENCUESTROSek parte-hartzea arrakasta handiko esperientzia izan da. ENCUESTROSen dinamikan sartu diren boluntarioei dagokienez, arrakastaren arrazoiak hauek izan dira:

- **Esperientziaren iraupen-denbora**

Urtebetetik bi urtera bitartean iraun dute esperientziek. Hori alderdi positibo bat izan da; hala, boluntarioek, Peruko errealtatea ezagutzeaz gain, batez ere, testuinguru kulturala ezagutu dute. Zerbitzua kalitatekoa izan dadin eta eragin positiboak izan ditzan, boluntarioek hainbat neurri har ditzakete, eta inkulturazio-prozesua da garrantzitsuenetakoa bat: haien jatorrizko herrialdearen eta Peruren arteko kultura-kodeen aldeak ulertzeko, bereizteko eta onartzeko gaitasuna izatea, hain zuzen. Egokitzapen-prozesu horrek –desberdina izan da, pertsonaren arabera– denbora-tarte esanguratsu bat hartzen du, eta arreta berezia eskaini behar zaio. Hala ere, egokitzapen-prozesu horiek gainditu ondoren, emandako ardurak lasaiago eta konfiantza handiagoz garatu ahal izan dituzte boluntarioek, eta pozgarri ere izan zaizkie.

- **Boluntarioaren profila eta trebakuntza**

ENCUENTROSen programetan eta proiektuetan parte hartu zuten boluntarioek profil berezi bat zuten: Jesusen Lagundiak sustatutako guneetatik zetozen, eta batzuk kristau-elkarteko kide ziren (CVX). Alderdi hori garrantzitsua izan da, azkar egin baitzuen bat ENCUENTROSek eta bertako langileek adostutako balioekin, printzipioekin eta planteamenduekin. Halaber, Volpa boluntarioek prestakuntza-prozesu garrantzitsu bat izan zuten.

- **Talde-lana eta ardurak banatzea**

Aurretik aipatutako alderdiei (esperientziaren iraupenak, inkulturazio-prozesuek, profilak eta jasotako prestakuntzak) eta direktiba instituzionalei esker, boluntarioak errazago integratu ziren ardura partekatuak eta zehatzak bere gain hartzen zituen talde batean. Nahiz eta boluntarioen beren berezitasunak kontuan hartzen ziren, praktikan, ardura zehatzak zituzten boluntarioek, lantaldeko beste edonork bezala. ENCUENTROSeiko langileei eskatzen zitzaienaren antzekoa zen haien eginkizuna, bai eta erakundearen gaineko iritziak eta iradokizunak ere.

- **Konpainia egitea**

Konpainia pertsonalak ere erraztu du inkulturazio-prozesua, trebakuntza eta boluntarioen lana. Uste dugu esperientzia oso ona izan dela haientzat, baina ENCUENTROSek izendatutako pertsona baten konpainian eraikiz joan dira sentimendu hori.

ZER SUPOSATZEN DU NAZIOARTEKO BOLUNTARIOTZAK ZURE ERAKUNDEARENTZAT?

Borondate instituzionala, etekinen eta horrek sorrarazten dituen ekarpenen gaineko uste osoa eta erakundean parte hartzeko grina biltzen ditu. Horrek esan nahi du erakundeak prest egon behar duela; alde batetik, erakundearen gehiengoak ikuspegi horrekin ados egon behar du, eta, bestetik, erakundeak berak horretarako prest egon behar du. Horrek esan nahi du aurrez finkatutako programa bat egon behar duela (harrera, trebakuntza eta konpainia) eta baliabide pertsonalak eta ekonomikoak esleitu behar direla.

ZER EKARPEN EGITEN DIO NAZIOARTEKO BOLUNTARIOTZAK ZURE ERAKUNDEARI

- Esperientziatik abiatuta, indartzea eta erlazio instituzionalen eta pertsonalen zabaltzea ekarri dio nazioarteko boluntariotzak ENCUMENTROSi. Nolabait, ENCUMENTROSen lana zabalago ezagutzen eta hedatzen da hainbat komunikazio-bideren bitartez.
- Ikuspegi zabalago eta konplexuago batetik, garapenerako lankidetzak eta Hegoalde-Iparralde erlazioak ulertzea.
- Boluntarioen eta globalizazio-testuinguruan lan egiten dugun kultura arteko inplikazioa.
- Ondorio positiboak proiektuen garapenean. Boluntarioek parte hartu duten proiektuak lau dimentsiotan izan dira onuradun: alde batetik, errealitatearen begirada konplexuago bat egin dute, erlatibizatu eta konplexutasuna emanez, honek perspektibak eta begiradak aberastea lagundu du; bestetik, boluntarioen borondate, disposizio eta konpromisoak bertako profesionalentzako zailagoak izan diren egoeretan lan egitea ahalbidetu die; zekarten formazio profesionalak ezarritako ardurak eraginkortasunez erantzuteko aukera eman die. Gainera, lan egin duten lekuko biztanleekin harremanetan egoteko jarrera guztiz irekia zuten.